

Lehen Hezkuntzako 4. mailaren Ebaluazio Diagnostikoa

2024/2025 Ikasturtea

Matematika gaitasuna: BURUZKO KALKULUKO ARIKETA

Irakasleentzako jarraibideak (IRAKURRI ARRETAZ PROBA APLIKATU BAINO LEHEN)

- Giro egokia ezarri, arretatsu eta isilik egon daitezen.
- Honako jarraibide hauek ikasleei eman (ziurtatu erne daudela eta ondo jasotzen dituztela):
 - Ozen irakurriko ditut 3 buruketa eta 3 eragiketa.
 - Hiru aldiz jarraian errepikatuko ditut, eta errepikapen bakoitzaren artean etenaldi txiki bat egingo dut.
 - EZIN duzue eragiketarik egin paperean, ez eta ezer idatzi ere; buruz egin behar dituzue.
 - Zifraz idatzi behar dituzue emaitzak aurrean duzuen taulan.
- Ulertu dutela ziurtatu eta gero, buruketak eta eragiketak enuntziatuko dira, errepikapen bakoitzaren artean 5 segundoko etenaldi txiki bat utzita.
- Ariketa osoan zehar, intonazio egokia erabiliko da, 6 buruketen/eragiketen artean eten argiak eginez.

A kalkulua	Mendizale batek ordubete eman du etxetik Xorroxingo ur-jauzira joaten eta handik etxera bueltatzen. 40 minutu eman baditu ur-jauziraino joaten, zenbat minututan egin du buelta?
B kalkulua	Artzain batek 250 ardiko artaldea dauka. Bi talde berdinetan banatu ditu ardiak. Zenbat ardi egongo dira talde bakoitzean?
C kalkulua	Unai 27 amuarrain zenbatu ditu Baztan ibaian eta Laurak 11 ahate. Zenbat animalia zenbatu dituzte guztira?
D kalkulua	$80 : 2 : 5 =$ (80 zati 2... <u>2 segunduko etena</u> ... zati 5 berdin...)
E kalkulua	$6 + 9 + 8 - 7 =$ (6 gehi 9... <u>2 segunduko etena</u> ... gehi 8 ... <u>2 segunduko etena</u> ... ken 7 berdin...).
F kalkulua	$8 \times 7 - 9 =$ (8 bider 7 ... <u>2 segunduko etena</u> ... ken 9 berdin ...).